## NAHIKO 2007-09
## IKASLEEKIN SAIO BEREZIAK.

## 1UD: ZAINKETA.
## SAIO BEREZIA (2007ko azaroa-abendua)

**BI ZATI**

Saioak, aurkezpenaren ondoren, bi zati izango ditu, bakoitzak bereziki unitateko jolas batekin lotura izango duelarik (“Zainketa!” familia-karta, “Piramidea” puzzlea eta “Sena ala heziketa?” dominoa).

1. Pertsonen zainketa.
2. Zainketaren Piramidea.

Lehendabiziko zatia (hiru ordu laurden/saio erdia baino piska bat gutxiago) bi talde banandutan egingo da: neskak talde batean eta mutilak bestean. Horretarako bi gela eskatu ditugu eskoletan. Banandu aurretik, taldeka lana bukatzeko eta berriro denok elkartzeko ordua adostu behar da. Gero, berriro elkartu eta bigarren zatia (ordubete/saio erdia baino piska bat gehiago) talde osoarekin egingo dugu.

**AURKEZPENA (5 minutu)**

Hasiera emateko, saioa girotzeko eta ikasleak zentratzeko unea da. Arin egin behar da, gehiegi luzatu gabe. Informazioa jaso eta informazioa emateko denbora laburra izan behar du: saioa nolakoa izango den azalduko zaie, izango dituen bi zatiak, zein talde egingo ditugun, nolako dinamika erabiliko den, eta abar.

---

## LEHENDABIZIKO ZATIA (NESKEN TALDEA ETA MUTILEN TALDEA): PERTSONEN ZAINKETA (30-40 minutu)

Bai nesken eta bai mutilen taldean lau azpitalde egin behar dira, talde bat hauetako karta bakoitzeko (neska-mutil kopurua txikia bada, bi talde edota talde bakarra):







Irudi hauek pertsonen zainketaren esparru ezberdinak adierazi nahi dute: jaioberriaren zainketa, familiaren alimentazioa eta osasuna (janariaren bidez), familiaren babesa eta zainketa orokorra (erropen bidez) eta gaixoa, zahar edo adinekoen zainketa.

Dinamikak bi atal izango ditu:

1. **Edukia (zer da zainketa; zainketa egiteko bitartekoak behar dira; ez da pertsona bakarraren kontua)**. Guztion artean, materialak ikusi, ezagutu, sailkatu eta "zainketaren taula" osatu (ikus imprimakia), hau da zainketa arlo bakoitzari (irudi bakoitzari) dagozkion materialak lotu eta idatzi.

2. **Jolas sinbolikoa (egin dezagun denon artean)**. Lortutako gauzekin jolastuz, zainketa ekintza bat/bi egin beharko dute/dituzte. Horretarako, lehendabizi entrenatzeko denbora izango dute eta gero denbora zehatz bat guztien aurrean egiteko/antzezteko.

Helburua hauxe da: denon artean materialak ondo ezagutu eta sailkatu eta, egin beharreko zainketa banatuz, jolastuz praktikan jarri.

Erdiko kutxan, material guztiak elkarrekin jarriko dira:

- Erropa, bañera, haur-ohialak, motxila... (jaio berriaren aldaketa).
- Bazkaria, lapikoak, ontziteria... (bazkaria, otordua).
- Ikuzgailua, erropa, plantxa, erratza... (etxeko jira).
- Termometroa, esponja/belakia, pixoihala, izara/toalla... (gaixo baten ohe aldaketa).







Behin lau material multzoak sailkatuta dituztelarik, denbora utziko zaie egin behar duten lana prestatzeko, entrenatzeko.

Bukatzeko, denon artean (denok zerbait eginez) besteen aurrean egin beharko dute, egiten dutena azalduz. Eginbehar bakoitza "zainketaren taulan" zehaztuta dagoen moduan egin behar dute, **bitarteko guztiak erabiliz** eta beti ere **ohizko elkarrizketa eta komunikazioa** antzeztuz, hau da, benetan jolastuz:

1. Jaio berriaren aldaketa.
2. Bazkaria, otordua.
3. Etxeko jira.
4. Gaixo baten ohe aldaketa.

Materialak kutxan gorde (talde bakoitzak bereak) eta guztion (neska eta mutilen) bateratze-lana egitera joango dira.

---

**BIGARREN ZATIA (NESKAK ETA MUTILAK ELKARREKIN): BATERATZE-LANA (10 MINUTU) ETA ZAINKETAREN PIRAMIDEA (35-45 MINUTU)**

Neska eta mutilak elkartuta, talde osoak lehendabiziko zatiaren **bateratze lana (10 minutu)** egingo du. Hitza propio mutilei eta neskei emango zaie, talde bakoitzaren esperientzia jaso eta alderatu nahian:

- Gustatu zaie? Zer gehien? Zer gutxien? Zergatik?
- Osatu dituzte taulak? Material guztiak ezagutzen zituzten? Zein ez? Zergatik?
- Egindako lau zainketen artean, zein iruditu zaie zailena? Zein errezena? Zergatik?
- Zer komentatu dute? Ondorioren bat atera al dute?

**ZAINKETAREN PIRAMIDEA (35-45 minutu)**
4/5 neska-mutilez osatutako talde mistoak egingo ditugu (taldeak mistoak izan behar dute, garrantzitsua da). Taldeak frogak egiteko dira, txandakatuz mimikaz ekintza batzuk adierazteko).

Helburua, gelako arbelean (mahai baten gainean, lurrean gelaren erdian), guztion artean zainketaren piramidea osatzea da. Piramideak bost maila ditu eta behetik goruntz eraiki behar da. Goiko mailan karta bat jartzeko, beheko mailako bi jarrita egon behar dute.

A5 neurriko karta bakoitzak bere piramide-mailako ekintza bat du zehatz-mehatz idatzita, talde batek beste guztiei mimikaz adierazi beharko diena. Besteek sekuentzia osoa antzeman beharko dute pausoz-pauso eta zehaztasunez. Adibidez:

"Suhiltzaile talde bat zarete. Besteek, zuen keinuak ikusita, istorio hau kontatu behar dute, bost urratsak aipatuz:

1. Herrian etxe bat sutan dago. Pertsona bat barruan dago. Irten nahi du baina ezin du. Suhiltzaileei deitu die.
2. Suhiltzaileak prestatu eta martxan jarri dira bere argi eta sirenekin. Iritsi dira. Tutu malguak atera eta ura jaurtitzen hasi dira.
3. Sutea handia da. Barruko pertsona larri dago. Lehenbailehen atera behar dela konturatu dira suhiltzaileak. Eskailera luzatu dute eta suhiltzaile bat igo da pertsonaren bila.
4. Haize asko dago, eskailera asko mugitzen da eta ezin dute horrela jeitsi. Aire-koltxoia atera eta puztu egiten dute. Salto egiteko esan diote.
5. Pertsonak beldurra du. Suhiltzaileak eskutik heldu eta biak batera egiten dute salto."

Froga gainditzen denean, karta jartzen da eta beste talde baten txanda da. Denetara, piramidea osatzeko, 5-4-3-2-1 kartaz maila guztiak osatu ahal izateko, horrelako 15 froga gainditu behar dira.


































Bukatzeko, 5-10 minutu falta direnean, jolasa bukatutzat eman, dena jaso dezatela eta egindakoa komentatu: gustukoa, zaila, erreza... Gure aldetik, frogak egiterakoan behatutako detaileak aipatuko ditugu gero irakaslearekin jarrai dezaten (ikus hurrengo puntua “ikerketa txikia”). Era berean, frogak utziko dizkiegu jolasa beste egun batean bukatu dezaten.

---

**IKERKETA TXIKIA: BEHATU ETA EBALUAKETA FITXAN JASO**

Saio hau ikerketa txiki bat egiteko erabili nahi da.

- **Lehendabiziko zatian, nola jolasten dira**: neska eta mutilen zailtasunak, komentarioak, jarrerak, jolasteko modua... behatu eta jaso behar dira.
- **Bigarren zatian, nork egiten du zer?**: egiten dituzten mimika/antzerkietan, gauza hauek behatu eta apuntatu behar dira saioa bukatu ondoren: neska edo mutila den etxean sutan geratu den pertsona, kamioi gidagia, eskaileratik igo den suhiltzailea... eta horrela antzerkitxo bakoitzeko paper edo rol ezberdinetan.

--
EMAKUNDE-NAHIKO
2007KO AZAROA